




PR-Gi 205


ANPORRETAKO BIRA, BURDINAREN BIDEA














PR-Gi 205 ANPORRETAKO BIRA, BURDINAREN BIDEA

Ibilbide honek erakusten du burdinak zer bide egiten zuen antzina, minerala non garbitzen zen, eta Meatzerreka auzoa bera, meatzarien auzoa. Bidean aukera dago Arrasateko tontor bi ezagutzeko, Itturritxipiko gaina eta Epeleko gaina.



MIDE

| | | | |
|---|----------------------------------|---|------------|
| <p>Ibilbidearen maila tekniko eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.</p> | Denbora |  | 3h 25' |
| | Igoera desnibela |  | 516 m |
| | Jaitsiera desnibela |  | 516 m |
| | Distantzia horizontala |  | 11,7 km |
| | Ibilbide mota |  | Zirkularra |
| | Ingurune naturalaren gogortasuna |  | 1 |
| | Orientazioa ibilbidean |  | 2 |
| | Zailtasuna desplazamenduan |  | 2 |
| | Egin beharreko esfortzua |  | 3 |

MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Monterron parkea.** Ibilbideak hasiera du Monterron parkeko panel informatiboaren aurrean. Hemen bidegorria eskumara hartzen du Musakolaraino. Han bidegorria uzten du ezkererantz eskaileretan gora institutuko goiko eraikinerantz. Gero ezkerretik doa hormigoizko pistatik Antoniñako mineral garbitokiraino.
- **(B) Antoniñako mineral garbitokia.** Hemen, hormigoizko pista utzita, bideak hartzen du ezkerrean; mendi pistatik gorantz jarraitzen du sigi-saga. 4 km inguruko igoyeraren ondoren hau utzi eta eskumara doa bidezidorretik pagadian zehar, guda zibileko lubakitik aurrera, Itturritxipiko gainera iritsi arte.
- **(C) Itturritxipiko gaina.** Jaitsiera ere lubakitik aurrera egiten du, baina 300 metrora hura utzi eta eskumarantz doa hasieran eta segituan ezkerrean, Epeleko gainera iritsi arte.
- **(D) Epeleko gaina.** Gailurretik bidezidorrean behera abiatzen da pistaraino. Hemen ezkerrean, eta berriro ezkerrean, pista nagusiraino. Ondoren, beherantz, 550 metro eginda hartzen du eskumara doan pista, Etxaldebarri baserriraino. Hormigoizko pistatik jarraitzen du Meatz Erreka elkartera.
- **(E) Meatz Erreka elkartea.** Hemendik ibilbidea Erregebidean behera doa, herrigunerrantz. Urzulo iturburua eskumara gelditzen da, eta beherago San Balerio ermita. Arrasateko meatzarien auzoa izandakoa atzean utzita, irteera puntura itzultzen da.

16
205



▪ **Antoniñako mineral garbitokia:** XX. Mende hasieran minerala ateratzen zen Meatzerreka inguruko meatzeetatik, eta airez, kable bidez, ekartzen zuten Antoniñaraino, han txikitu eta bahetzeko. Gero, tromel batean garbitzen zen, lurrak, buztinak eta materia organikoa kentzeko. Prozesu haren ostean, kamioietan kargatzen zuten, eta bereziki eramaten zuten Bergarara, labe garaietara. Balio bako materiala pilatzen zen errekaaren ibilguan, presaren atea zabaldu eta ebakatu arte.

17
205



▪ **Espainiako Gerra Zibileko lubakiak:** 1936ko gatazka beliko hartan, hasiera batean indar matxinatuek hartu zituzten Anporreta eta Itturritxipiko gainak, baina ikusita aurrez aurre zituztela tropa leialak, frontea egonkortu egin zen leku hartan luzaroan, zazpi hilabetez, eta horietan indar biek lubaki mordoa zulatu zuten.

10
205



▪ **Itturritxipiko gaina (585 m):** Arrasateko tontor esanguratsu eta ezezagun horretan aztarna batzuk daude, tumulu megalitikoarenak izan daitezkeenak.

11
205



▪ **Epeleko gaina (566 m):** tontor honetatik, Anporreta eta Meatzerreka artean dagoena, Udaltx parez pare ikusita aukera dago haren handitasunaz gozatzeko.

12
205




▪ **Haizeola eta zepadiak:** Epeleko gainean haizeola baten aztarnak aurkitu dira. Mendian kokatutako labe horiek neurri txikikoak izaten ziren, zabaleran 60 cm eta altueran 150 cm ingurukoak, oinarria lurrean induskatua eta hormak buztinez egindakoak.

Meategietatik ateratzen zen burdin mea -kiskalia eta xehatua- sartzen zuten labe zirkular horietan, egur ikatzarekin edo egurrarekin batera, hau da, minerala transformatu eta burdina ateratzen zuten, gero lantegietan erabiltzeko. Airearen injekzioa burutzen zen eskuz eragindako hauspoen bidez. Prozesu haren soberakinen pilek zepadiak osatzen dituzte.

Ez dakigu zehatz-mehatz labe haiek noiz hasi ziren erabiltzen, baina datazioek erakutsi dutenez Anporretako haizeola erabiltzen zen XI. mendearen bigarren erdian. XIII. Mendean, sistema berritzaile batek ordezkatu zituen: burdinola hidraulikoak. Horiek kokatzen ziren herrigunetik gertuago, harresiz kanpo.

13
2015
ETA



▪ **Urzulo iturburua:** Arrasate hornitzen zuen iturburu nagusia zen, Urkuluko urtegia egin aurretik. Gaur egun ere hainbat auzo hornitzen ditu. Bertara iristeko Santutxo pasa eta 400 metrora ibilbidetik 100 m desbideratu behar da eskumara.

15
2015
ETA



▪ **San Balerio ermita:** ez badakigu ere noiz eta nor ezaiki zuen, badirudi haren jatorria galtzen dela gure aroaren lehen mendeetan. Eliza eginkizunak bete zituen, baina San Balerioko meatzarien kofradiaren egoitza ere izan zen, 1434an sortu zenetik desegin zen arte 1958an. Ermita barruan deigarriak dira ganga polikromatua eta erretaula, zeinak, tradizioak dioenez, buruko minak sendatzen baititu, erretaulari hiru buelta emanda, erlojuaren kontrako noranzkoan.

14
2015
ETA



▪ **San Balerio parkea:** lursail hau, auzoko ermitari lotua, kofradiarena zen. Garai batean mahastiak izan ziren bertan, eta ateratako ardo goxoa banatzen zen San Balerio egunean. Lursaila udalak erosi zuen 2014. urtean. Hurrezkeron, lan batzuk egin dira bertako basoa errehabilitatzeko.

- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- Arrasate- Elorrio Erregebidea
- Arrasateko bira
- Herrigunea-Meatzerreka
- Udaltxeko bira